

# LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1 h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.</li> </ul>	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzen da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### UMEK ERE IZATEN DUTE OPOR OSTEKO SINDROMEAK

Uda luzea pasatu ondoren, eskolara itzuli beharra egoten da. Gutariko askok seme-alabei nabaritu diegu gogorik gabe edo estresatuta daudela. Opor osteko sindromea esaten diote horri. Ursula Tomás psikologoak azaldu digunez, umeek nahi dutena egiten ia hiru hilabete egon ondoren, bat-batean eguneroko errutina hartu behar izaten dute berriro, eta horrek estresa sortzen die. Askotan gurasoak dira urduritasuna sortzen dietenak, eskolako materiala ikasturtea hasi baino askoz lehenago erosi nahi dutelako.

Gainera, umeak beldur izaten dira ikasturte berriak zer ekarriko dien: ikaskide eta irakasle berriak nolakoak izango diren, ikasgaiak zailagoak izango diren... Ez dakite zehatz-mehatz zeri egin beharko dioten aurre. Ondorioz, portaeran arazoak izango dituzte. Oporraldia zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta gogorragoa izango da buelta. Hala ere, sindromeak ez du izaten eragin berdina ume guztiengan. Batzuei izugarri gustatzen zaie eskolako ohituretara bueltatzea. Gainera, ikaskideak ikusteko desiratzen egoten dira. Beste batzuk, ordea, urte osoa egongo lirateke oporretan.

Gurasoen jarrera ezinbestekoa da seme-alabei errazago egiteko eskolara itzultzea. Ez dute urduri egon behar umeen aurrean, eta esan behar diete euren laguntza izango dutela beti. Animatu egin behar dituzte. Era berean, ona da eskolak hasi baino astebete edo bi aste lehenago jarraibide batzuk kontuan hartzea. Ohera joateko ordua aurreratu egin behar da pixkanaka-pixkanaka, eta goizean ere lehenago esnatu behar dute. Komenigarria da eskolako materiala aurretik hartzea, denboraz erostea, eta arropa eta motxila erosi behar badira adibidez, umeari aukeratzeko uztea. Eta etxerako lanak udan egiteko agindu badizkiete, ondo planifikatu behar dira. Adibidez, goizean etxerako lanak egin ditzakete, eta arratsaldeak libre izan. Ohitu egingo dira eta iraila heltzea ez da izango hain traumatikoa haientzat.

Eskolako lehenengo egunetan guraso batzuek arazoak izaten dituzte seme-alabak esnatzeko. Gueuz kostatu egiten zaie loak hartzea, eta hurrengo egunean ez dute ohetik jaiki nahi izaten. Ursularen iritziz, arazo hori goiz jaikitzen hasten direnean konponduko da. Gosaria ere oso garrantzitsua da; ondo gosaltzen ez badute, erdi lo joango dira eskolara, eta lehenengo hiru orduak galdu egingo dituzte.

Nekearen eta estresaren eraginez, jateko gogoia ere galtzen dute ume batzuek. Udan egindako gehiegikeriak baztertu eta dieta egokia hartu behar dute. Bizitza osasuntsua eta aktiboa izan behar dute, eta aisialdia, bideojokoen edo Interneten aurrean eman beharrean, paseatzen, irakurtzen edo kirola egiten ematera animatu behar dira. Eskolaz kanpoko ekintzak haien gustukoak izatea ere garrantzitsua da, deskonektatu eta ondo pasatzeko. Umearen arabera, opor osteko sindromea astebebetik hilabete batzuetara luzatu daiteke. Gehiago luzatzen bada, komenigarria da eskolan edo profesional bati galdetzea, beste era bateko arazo baten seinalea izan daitekeelako.

**MARINA Itxaso. Aikor, 2010eko iraila. Egokitua.**

## **1. ariketa. Aukeratu erantzuna**

### **1. Noiz estresatzen dira umeak?**

- a) Uda gogorik gabe hartzen dutenean.
- b) Oporrak amaitzen direnean.
- c) Gurasoek oporretarako eskola materiala erosten dietenean.

### **2. Zer gertatzen zaie umeei ikasturtearen hasieran?**

- a) Gustura bueltatzen direla eskolara, oporraldia luzea denean.
- b) Ume guztiak gaizki portatzen direla lehenengo egunetan.
- c) Ume batzuek arazoak izaten dituztela errutinara itzultzeko.

### **3. Zer egin behar dute gurasoek?**

- a) Lasai egon eta umeei laguntza eskaini.
- b) Ikasturtea hasi baino astebete edo bi lehenago umeekin eskolara itzuli.
- c) Gogotsuago egon umeen aurrean.

### **4. Zer diote testuan udako lanez?**

- a) Iraila arte ez dutela horiek egiteko ohitura hartzen.
- b) Beharrezkoa dela lanak goizetan egiteko ohitura hartzea.
- c) Horiekin hartzen duten ohitura lagungarria dela ikasturte hasierarako.

### **5. Zer arazo izaten dute ume batzuek?**

- a) Urduri daudenez, goizegi jaikitzen direla.
- b) Lo egitea eta esnatzea kostatzen zaiela.
- c) Gehiegi gosaltzen dutela eta erdi lo joaten direla eskolara.

### **6. Zer gomendatzen du psikologoak?**

- a) Bideojokoak eta Internet erabiltzera animatzea.
- b) Jatekoa zaintzea.
- c) Eskolaz kanpoko ekintzetan kirola aukeratzea.

### **7. Zer dio opor osteko sindromeari buruz?**

- a) Batzuetan luzeagoa eta beste batzuetan laburragoa izaten dela.
- b) Astebetetik gorakoa bada, norbaitekin kontsultatzeko.
- c) Hilabetekoa bada, beste arazoren bat egon daitekeela.

## 2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

**Lotu esaldiak eta testuak.**

**A ERRENTERIAKO UDALA**

Urtero bezala, gazteentzako eta helduentzako ipuin-lehiaketa martxan da.

**Oinarriak.** Lehiaketan euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako ipuinek har dezakete parte eta partaide bakoitzak lan bat baino gehiago aurkez dezake.

Ipuinek ezin dute hiru folio baino gutxiago eduki, ezta zortzi baino gehiago ere.

Ipuinek argitaratu gabeak izan behar dute eta beste inongo lehiaketan saritu gabeak.

Originalak jasotzeko epea, irailaren 16an bukatuko da, eta erabakia abenduaren 17an emango da ezagutzera.

**Sariak**

1. saria: 1.200 euro
2. saria: 420 euro
3. saria: 210 euro

Elkarte antolatzailea ipuin sarituen jabe izango da eta horiek argitaratzeko eskubidea izango du. Sarituak ez diren ipuinak desegin egingo dira.

<[gipuzkoangazte.info](mailto:gipuzkoangazte.info)>. Egokitua.

**B BILBOKO UDALA**

Ipuin-lehiaketa honen helburua Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek euskaraz irakurtzea eta idaztea da.

**Aurkezteko epea.** Urtarrilaren 31ko 14:00ak ipuinak jasotzeko azken ordua.

**Idazlanaren ezaugarriak.** Euskaraz idatziak eta marrazkiz osatuak.

Gutziz originalak eta argitaratu gabeak.

Egile bakarra.

Ordenagailuz edo idazkera argian idatziak.

Gai aldetik libreak.

Luzeran 2-4 orri bitartekoak.

**Sariak**

1. saria, 180 €, oparitan
2. saria, 140 €, oparitan
3. saria, 100 €, oparitan

Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol Sailak egoki iritzitako ipuinak argitaratzeko eskubidea izango du, sarituak zein saritu gabeak.

Argitaratuko direnak parte-hartzaileen eta ikastetxeen artean banatuko dira.

<[bilbaioeuskaraz.com](http://bilbaioeuskaraz.com)>. Egokitua.

**C LAUDIOKO UDALA**

**Ipuin-lehiaketako mailak.** Helduen maila (1991. urtean edo lehenago jaiotakoak). Gazteen maila (1992. eta 1999. urte bitartean jaiotakoak). Umeen maila (Lehen Hezkuntzako ikasleak).

**Oinarriak.** Parte hartu nahi dutenek lanak euskaraz edo gaztelaniaz, edo bietara aurkezteko aukera izango dute. Gaiak, librea izateaz gain, inoiz argitaratu gabea eta originala izan beharko du.

Lanen luzapena desberdina izango da. Umeen lanak 2-6 orri bitartekoak izango dira eta gazte eta helduenak 4-10 bitartekoak.

Egile bakoitzak bere datu pertsonalak eta NANaren fotokopia sartu beharko ditu gutunazal itxi batean. Kanpoko aldean eta lan bakoitzaren kopietan, egileak lanaren izenburua eta kategoria jarri beharko ditu eta inolaz ere ez egileari buruzko daturik.

**Sariak.** Aurreko urteekin konparatuta, sariak zertxobait handiagoak izango dira: irabazleak 900 euro eta diploma; gazteen kategorikoak 300 euro eta diploma; eta eskola arteko kategorian, txapeldunak 120 euro eta diploma.

<[laudikoudala.net](http://laudikoudala.net)>. Egokitua.

**2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak**

8.	Idazlanek euskaraz bakarrik idatzita egon beharko dute.
9.	Egile bakoitzak lan bat baino gehiago aurkezteko aukera du.
10.	Helduek, gazteek zein hurrek parte har dezakete lehiaketa honetan.
11.	Lanak ordu biak arte jasoko dira.
12.	Lanak jasotzen direnetik erabakia jakin arte hiru hilabete pasatuko dira.
13.	Egilearen izen-abizenak ez dira lanean agertu beharko.
14.	Lanek luzera desberdina izan behar dute kategoriaren arabera.
15.	Irabazleei ez zaie dirurik emango.
16.	Saritu gabeko ipuinak ez dira argitaratuko.
17.	Argitaratu ondoren, egileei ere banatuko zaie.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

## 3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

## ANA ISABEL MUJIKA

**Gaztetan, istripu baten ondorioz itsu geratu zen Ana Isabel Mujika. Bere bizitzako bidaiarik luzeena egin zuen Ameriketako Estatu Batuetara joan zenean, Michiganera. Hiru aste eman zituen bertan eta esperientzia berri batekin bakarrik ez, lagun berri batekin ere itzuli zen: Dutchess (dukesa).**

18

Bai, hala da. Urriaren 16an hasi nuen bidaia eta azaroan itzuli naiz. Bidaia luzea izan zen eta beldur handia nuen hasieran, baina esperientzia ahaztezina izan da, oso polita.

19

Bai, hala da. Oso prozesu luzea izan da hau. Formulario asko egin eta galdeketa asko gainditu behar dituzu, mota askotakoak. Eta hala ere, txakurra edukitzeko gai zarela erakutsi behar duzu. Lanerako dela demostratu behar duzu, ez dela maskota bat izango.

20

Ingurua ezagutzeaz gain, irakasleekin lanean aritu ginen txakurra ezagutu aurretik: eramaten dituzten arnesak nola erabili behar genituen eta guk txakurrak nola gidatu behar genituen ikasten aritu ginen. Ondoren, Dutchess ezagutu nuenetik itzuli arte, kalean aritu ginen lanean.

21

Ez du zerikusirik, bastoiarekin ibili edo Dutchess ondoan izatea. Errepidea gurutzatzeko adibidez, eskailerak jaitsi eta igotzeko, espailoiak aurkitzeko... Bastoiarekin joaten nintzenean, dena aurkitu behar izaten nuen, oztopoak bilatu, nire burua kokatzeko. Orain, Dutchessek gidatzen nau, berak aurkitzen du dena.

22

Ez, ez. Eguneko 24 orduak ematen ditu nirekin. Lo egiten duenean bere ohean dago, baina bestela nire ondoan egoten da beti.

23

Bai, hala da. Orain ez naiz ni bakarrik, Dutchess eta biok gara. Baina gutxienez sei hilabete eta urte bete artean beharko dugu osotasunean talde bat izateko.

24

Dutchess eta Lulu oso ongi konpontzen dira. Beldur handia nuen, baina Rochesterretik lezioa ikasita etorri nintzen. Kalean aurkeztu behar izan genituen, han ezagutzeko elkar. Elkar usaintzen eta ezagutzen hasi zirenean, etxera igo ginen eta ordutik ez da inolako arazorik egon.

25

Gustura daude. Lan bat gehiago da, hori egia da. Baina niri izugarrizko laguntza eskaintzen dit eta hori ezinbestekoa da. Dutchessek ematen didan segurtasuna eta konpainia izugarri harrigarriak dira.

**Aldaize, 2009ko abendua. Egokitua**

**3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak**

- A. Ez zaitu segundo bakar batean bakarrik uzten, ezta?
- B. Nolakoa izan zen ikasteko prozesua?
- C. Bidaia luze batek zure egunerokotasuna aldatu al du?
- D. Zertan nabaritzen duzu desberdintasun gehien?
- E. Hala ere, aspaldi egiteko asmoa zenuen zerbait zen, ezta?
- F. Talde bat zarete, orduan?
- G. Ingelesez hitz egiten diozu Dutchess-i, ez da hala?
- H. Beste txakur bat ere badaukazu etxean. Zer moduz moldatzen dira?
- I. Etxekoek zer diote?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

<b>Hutsuneak</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>
<b>Galderak</b>								

<b>Soberakoa</b>	
------------------	--

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

### 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.

**Gutxienez 50 hitz** idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Azkenaldian askotan joan zara osasun-zentrora. Arazo batzuk izan dituzu: hitzordua hartzeko zailtasuna, kontsultara sartzeko atzerapena... Haserre zaude eta kexa idaztea erabaki duzu.
- Osasun-zentroan inprimakia eman dizute kexa idazteko. Azaldu ezazu zer arazo izan dituzun eta eskatu konponbidea.



## 2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.  
**Gutxienez 100 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Lankide baten mezua jaso duzu zuri zer opor-txanda tokatu zaizun jakinarazteko. Laneko eta familiako arrazoiengatik, zuri ez datorkizu ondo oporrak egun horietan hartzea.

### ■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client interface. At the top, there are buttons for 'Bidali', 'Gorde', and 'Baztertu'. Below that, the sender's name is 'Norentzat: Mendizabal, Mario'. There are links for 'Gehitu Cc' and 'Gehitu Bcc'. The subject line is 'Gaia: Opor-txandak' with a link for 'Erantsi fitxategia'. A rich text toolbar is visible with various icons for bold, italic, underline, font color, background color, bulleted list, numbered list, indent, outdent, link, unlink, and text color. The email content is as follows:

**Egun on, Mario:**

**Udako oporrak hurbil ditugunez, honekin batera bidaltzen dizut arduradunak egin duen udako opor-txanden banaketa. Hala ere, ez da behin betikoa.**

**Zuri egokitu zaizun txanda hartzeko arazorik baduzu, idatzi lasai eta komentatuko diot arduradunari. Hori bai, lehenbailehen jakitea komeni zait.**

**Gero arte**

**Miren Elorza**

### ■ Erantzun iezaiozu lagunari. Azaldu zergatik ez zauden ados, noiz hartu nahi dituzun oporrak...

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «UMEEK ERE IZATEN DUTE OPOR OSTEKO SINDROMEA»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	C	5.	B	6.	B
7.	A				

■ **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.

■ **Irakurgaia:** «IPUIN LEHIAKETAK»

8.	B	9.	A	10.	C	11.	B
12.	A	13.	C	14.	C	15.	B
16.	A	17.	B				

■ **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.

■ **Irakurgaia:** «ANA ISABEL MUJIKA»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	C	E	B	D	A	F	H	I

Soberakoa	G
-----------	---